



BASES DE LOS PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR.

EJERCICIO 2026.

ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIAREN AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN OINARRIAK.

2026ko EKITALDIA





1. ZER DIRA AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK? ¿QUÉ SON LOS PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS?

Aurrekontu parte-hartzaileak partaidetzarako tresna demokratikoa dira, eta, horren bidez, Zaraitzuko biztanleek ibarreko politiketan eta erabakietan parte hartzeko eskubidea baliatzen dute.

Herritarrei ezagutzera emanen zaie, eta erabilitako hizkera eta euskarriak ahalik eta argienak izanen dira, herritar guztiek erraz ulertu eta parte har dezaten. Gardentasuna bermatuko da erregelamenduan, edukietan eta prozesuaren garapenean.

Herritarren iritzia kontuan hartuko dira, eta hartutako erabakiak aurrekontuan sartuko dira. Aurrekontu parte-hartzaileek herritar aktiboak sustatzea dute helburu, bai eta erakundearen aurrekontuaren zati bat zertarako erabiliko den erabakitzea ere: Zenbateko hori "aurrekontu parte-hartzaileak" izeneko partidan finkatuta dago, eta 2026rako 48.000 euroko zuzkidura du (BEZa barne). Batzordeak herritarren eskura jartzen du partida hori, ekitaldi honetan gauzatu dadin.

Prozesuaren ardura eta kudeaketa partekatua bultzatuko dute, herritarren eta toki-administrazioaren artean.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta ekitatea bultzatuko dituzte prozesuaren etapa guztietan eta aurrekontuan sartutako proposamenen garapenean.

Prozesuaren jasagarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa bultzatuko dute etapa guztietan, bai eta urteko aurrekontuan jasotako proposamenen garapenean, behin horiek onartu ondoren.

Oinarri arautzaile hauek zehaztuko dute nork eta nola aurkeztu behar dituen proposamenak, haien balorazioa, bozketa, etab.

Los presupuestos Participativos son una herramienta democrática de participación a través de la cual la población del Valle de Salazar ejerce su derecho a participar en las políticas y decisiones del valle.

Serán de conocimiento popular, con transparencia en su desarrollo, reglamento y contenidos. El lenguaje y los materiales utilizados en el proceso serán lo más clarificados posible para facilitar el entendimiento y participación en toda la ciudadanía.

Tendrán en cuenta las opiniones de la ciudadanía y las decisiones finales que se tomen incluyéndose en el presupuesto. Su propósito es promover una ciudadanía activa y tiene como objetivo decidir el destino de una parte del presupuesto de la entidad, cantidad fijada en la partida "presupuestos participativos", que para este año 2026 tiene una dotación de 48.000€ (IVA incluido) y que la junta pone a disposición de la ciudadanía para su ejecución en este ejercicio.

Favorecerán la responsabilidad y gestión compartida del proceso, entre la ciudadanía y la administración local.

Favorecerán la equidad e igualdad para hombres y mujeres en todas las etapas del proceso y en el desarrollo de las propuestas incluidas en el presupuesto.

Favorecerán la sostenibilidad económica, social y ambiental del proceso en todas sus etapas y en el desarrollo de las propuestas incluidas en el presupuesto anual, una vez aprobadas.

Las bases reguladoras que aquí se presentan determinan quiénes pueden y cómo deben presentarse las propuestas, su valoración, votación, etc.

2. NORK PARTE HAR DEZAKE?

Zaraitzun erroldatuta dagoen edozein pertsonak eta ibarrean egoitza soziala duen edozein talde edo elkartek parte har dezake (toki-entitateak eta haien mendeko erakunde autonomoak izan ezik).

¿QUIÉN PUEDE PARTICIPAR?

Podrán presentar propuesta cualquier persona empadronada o cualquier grupo o asociación con base social en el Valle de Salazar (excluyéndose el resto de las entidades locales del Valle y sus organismos autónomos).



Eskatzaile edo eskatzaile-talde bakoitzak nahi adina proposamen aurkez ditzake.

No existirá un límite de propuestas por solicitante o grupo de solicitantes.

3. BETE BEHARREKO IRIZPIDEAK

CRITERIOS QUE DEBEN CUMPLIR LAS PROPUESTAS

Proposamenek baldintza edo irizpide hauek bete beharko dituzte:

1. Zaraitzu osoari edo bertako biztanle orori zuzenduta egonen dira. Tokiko izaera nabarmena dutenak baztertuko dira.
2. Lurralde-eremua eta kokalekua zehaztu beharko dira. Jabetza bati eragiten badiote, titulartasun publikokoa izan beharko du, eta erabilera eta sarbidea publikoa izanen da.
3. Aurrekontu zehatza izanen dute, eta ekonomikoki ebaluatzeko modukoak izanen dira.
4. Ezin izanen dute eragin negatiborik izan ingurumenean eta garapen jasangarrian.
5. Kulturarekin, kirolarekin edo hezkuntzarekin lotuta egon ahal izanen dira.
6. Azpiegitura- eta ekipamendu-premiei erantzun ahal izanen diete, horiek estali gabe badaude.
7. Aisialdi osasungarria eta garapen soziala eta pertsonala sustatzera bideratuta egon ahal izanen dira.
8. Proposamenak baztertu ahal izanen dira, baldin eta mantentze-kostuak gehiegizkotzat jotzen badira.
9. Ezin izanen dute inor diskriminatu genero, arraza eta adin arrazoiengatik.
10. Aurtengo aurrekontu-ekitaldian gauzatu beharko dira.

Todas las propuestas que se presenten deberán cumplir los siguientes preceptos, o criterios:

- 1.- Las propuestas estarán dirigidas al Valle de Salazar y/o a su población, excluyéndose aquellas de marcado carácter local.
- 2.- Las propuestas deberán definir su ubicación y ámbito territorial, y en el caso de afectar a una propiedad, esta será de titularidad pública o al menos no será de titularidad privada, siendo de uso y libre acceso público.
- 3.- Las propuestas serán concretas y evaluables económicamente.
- 4.- Las propuestas no podrán tener un impacto negativo en el medioambiente ni en el desarrollo sostenible del valle.
- 5.- Las propuestas podrán estar relacionadas con la cultura, deporte o la educación.
- 6.- Las propuestas podrán atender las necesidades no cubiertas en materia de infraestructuras y equipamientos.
- 7.- Las propuestas podrán ir dirigidas a fomentar el ocio saludable, y el desarrollo social y personal.
- 8.- Las propuestas podrán ser descartadas, si se valora que los costes de mantenimiento pueden ser excesivos.
- 9.- Las propuestas no podrán ser discriminatorias con ninguna persona por motivos de género, raza, edad, etc.
- 10.- Deberán ejecutarse en el ejercicio presupuestario del año en curso.

4. ZER PROPOSAMEN BAZTERTUKO DIRA?

¿QUÉ PROPUESTAS QUEDAN EXCLUIDAS?

Proposamen hauek baztertuko dira:

- * Tokiko izaera nabarmena dutenak
- * Inbertsioa (halakorik balego) instalazio pribatuetan dutenak
- * Aurten gauzatu ezin direnak

Se excluirán aquellas propuestas que:

- * Tengan un marcado carácter local.
- * La inversión (en caso de haberla) sea en unas instalaciones privadas.
- * Que no sean posibles ejecutarlas en el año en curso.



* Teknikoki edo ekonomikoki bideraezintzat jotzen direnak

* Ezarritako irizpideak eta baldintzak betetzen ez dituztenak

* Onuradun zuzena edo partikularra dutenak

* Aurreko 2 deialdietan aurkeztu direnak

Batzordeak konpromisoa hartzen du baldintzak betetzen dituzten eta hautatzen diren 6 proposamenak finantzatzeko, gehienez ere 8.000 euro bakoitzeko (BEZa barne). Zenbateko txikiagoko proiektuak ere onartuko dira.

Baldintzak betetzen dituzten 6 proiektu baino gehiago egonez gero, bozketa egingen da. Bozketan Zaraitzun erroldatutako 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izanen dute.

Proiektuak hautatu ondoren, aurrekontu-partidan soberakinik balego, zazpigarren proposamenara pasatuko litzateke, eta horrela jarraituko litzateke partida agortu arte.

* Las que se consideren como técnica o económicamente no viables.

* Las que no cumplan los criterios y condiciones establecidas.

* Que el beneficio sea directo o particular.

* Proyectos presentados en 2 años/convocatorias anteriores.

La Junta, una vez seleccionadas las propuestas que cumplen el condicionado, se compromete a financiar 6 proyectos con un máximo de 8.000 euros cada uno (IVA incluido). Se admitirán proyectos de menor cuantía.

En el caso de que más de 6 proyectos cumplan el condicionado, se procederá a realizar una votación, en la cual podrán participar todas las personas empadronadas mayores de 16 años.

Una vez elegidos los proyectos seleccionados, y si hubiera sobrante en la partida económica, se pasaría a la séptima propuesta por orden de apoyo popular, y así sucesivamente.

5. NOLA AURKEZTU?

Batzordeak proposamenak aurkezteko eredu bat emanen du, eta horretan datu hauek bete beharko dira:

- Proposamenaren izena
- Azalpen laburra eta justifikazioa
- Non egingen den
- Onuradunak
- Eskatzailearen identifikazioa
- Aukerako beste datu batzuk

Proiektuak aurkezteko epea: martxoaren 3tik martxoaren 27ra.

Bozketa-eguna: apirilaren 18a.

Bozketak egin aurretik, proposamenak JENDAURREAN AZALTZEKO aukera izanen da. Ekitaldia apirilaren 17an, ostiralean, 19:00etan izanen da, Zaraitzuko Etxeko areto nagusian.

Adingabe batek proposamenik aurkeztuz gero, adin nagusiko baten bermea izan beharko du.

¿CÓMO SE REALIZAN LAS PROPUESTAS?

Para la presentación de propuestas la Junta facilitará un modelo con los siguientes apartados:

- Título de la propuesta.
- Breve descripción y justificación de la propuesta.
- Lugar donde se realizará.
- Colectivo beneficiario por la propuesta.
- Identificación de la persona o colectivo que formula la propuesta.
- Otros datos opcionales.

Fecha de presentación de proyectos del 3 de marzo al 27 de marzo.

Fecha de votación: 18 de abril.

Antes de las votaciones se dará la opción de hacer EXPOSICIÓN PÚBLICA, el viernes 17 de abril a las 19.00 horas en la sala del Valle, de cada una de las propuestas.

En caso de presentación de propuestas por menores de edad deberá avalarse por una mayor de edad.



6. NOIZ AURKETU? ¿CUÁNDO SE DEBEN PRESENTAR LAS PROPUESTAS?

Proposamenak aurkezteko epea martxoaren 3tik 27ra bitartekoa izanen da, eta Zaraitzuko Batzordearen bulegoetan edo junta@valledesalazar.com helbide elektronikoaren bidez egin ahal izanen da.

El periodo establecido para poder presentar las propuestas por la ciudadanía será desde el 3 hasta el 27 de marzo, en las oficinas de la Junta del Valle o través del correo electrónico junta@valledesalazar.com

7. BOZKETA: NORK EMAN DEZAKE BOTOA? CONSULTA POPULAR ¿QUIÉN PUEDE VOTAR?

Baldintzak betetzen dituzten 6 proiektu baino gehiago egonez gero, bozketa egingen da.

Bozketan Zaraitzun erroldatutako 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izanen dute.

Botoa ematerakoan, NANA, gidabaimena edo pasaporte (jatorrizkoa) aurkeztu beharko da.

En el caso de que más de 6 proyectos cumplan las condiciones, se procederá a realizar una votación en el mes de abril.

Tendrán derecho a voto las personas empadronadas en Valle de Salazar mayores de 16 años

En el momento en que se va a ejercer el derecho a voto se deberá presentar el original de DNI, carnet de conducir o pasaporte.

8. NOIZ ETA NOLA IZANEN DA BOZKETA? ¿CÓMO Y CUANDO SERÁ EL PROCESO DE VOTACIÓN?

Boto-emaila bakoitzak gehienez 3 proposamen hautatu ahal izanen ditu.

BOZKETA apirilaren 18an egingen da, Zaraitzuko Etxean, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 19:30era.

Se podrán votar un máximo de 3 de las propuestas.

La VOTACIÓN tendrá lugar el día 18 de abril en la Casa del Valle de Salazar, donde se habilitará una urna de 11:00 a 13:00 y de 18:00 a 19:30 horas.

9. HAUTATUTAKOEN KONPROMISOAK COMPROMISOS EN CASO DE SER ELEGIDO/A

Fakturak Batzordearen izenean egin behar dira, kontzeptuan honako hau jarrita:

"Proiektuaren izena. Proiektu parte-hartzaileak 2026
Nombre del proyecto. Proyectos participativos 2026"

Memoria labur bat ere aurkeztu beharko da, proiektuaren betetze-maila zehaztuz.

Las facturas deben de ir a nombre de la Junta con la siguiente nota en el concepto:

"Nombre del proyecto. Proyectos participativos 2026
Proiektuaren izena. Aurrekontu parte- hartzaileak 2026"

Habrà que presentar una pequeña memoria en la que detalle el nivel del cumplimiento del proyecto



PRESENTACIÓN DE PROPUESTAS PARA LOS PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS
AURREKONTU PARTE-HARTZAILEETARAKO PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Título de la propuesta / *Proposamenaren izena:*

Breve descripción y justificación de la propuesta / *Azalpen laburra eta justifikazioa.*

6

Lugar donde se realizará / *Non eginen da?:*

¿Qué situación quieres mejorar? / *Zer egoera hobetu nahi duzu?*

Colectivo beneficiario por la propuesta / *Onuradunak:*

Coste estimado de la propuesta / *Aurreikuistako kostua:*

Identificación de la persona o colectivo que formula la propuesta (Nombre y apellidos, email) / *Proposamena egiten duen pertsonaren edo taldearen identifikazioa (izen-abizenak, helbide elektronikoa)*

Otros datos opcionales (documentación que se adjunta) / *Aukerako beste datu batzuk (erantsitako dokumentazioa)*

_____, 2026ko martxoaren ____ (e)an

En _____, a _____ de 2026

Sinatuta/Fdo.: